

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren irudi berriaren inguruan EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN SINFONIA BISUALA. OBERTURA.

Komunikazioak ideiak konbinatzen dituen bezala, musika notak konbinatzean datza. Horregatik, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldi berriaren kanpaina elementuen konbinazio bidez eratzea egokia dirudi.

Objektu harrigarri, original eta inspiratzaile batek irudikatzen du programa bakoitza. Printzipioz batak bestarekin zein programarekin zerikusirik ez duten bi objekturen alboratze harmonikoak osatutako objektua, biak elkarrekin, aldiz, programazioarekin esanahi solidarioa ekoizten dute, kontzeptu bisual ikusgarri eta erakargarriez gain. Sinbolo horiek ikusleen arreta erakartzen duten irudi deigarriak dira, bai euren indar bisualarengatik bai testuingurutik ateratako irudiak komunikatzeko duten ahalmenarengatik, zeinak asko aldentzen diren orkestraren ohiko proposamenetatik.

Sinbologiaren erabilerak irakurketa irekia behar du. Sinboloen indarra gogora ekartzeko horretan datza hain zuzen ere, zeina zehaztasun eza eta interpretazio desberdinak transmititzeko gaitasunean oinarritzen den aldi berean. Ezin dugu ikuspegi zorrotza egin, bilaka gabiltzan inspirazioa inhibitzen dituzten arrazoiaren mugak ditugulako. Harritu eta zirrara pizteko produktutik aldendu behar dugu. Horregatik, nagusiki, ez da musika-tresnarik agertzen karteletan.

Amets egin behar dugu, zabaldu, errealitatetik irten, hori baita hain zuzen ere musikaren helburua.

Hala eta guztiz ere, programaren eta bere sinbologiaren artean lotura semantiko bat ere egin behar du, komunikatzeko indarra are handiagoa izan dadin. Egon, badago. Sinbolo bakoitzak programaren alderdietako bi adierazten ditu: kontzertuak, musika-egileak edo interpreteak.

Sinbolo bakoitza galdera bat da, hieroglifikoa, eta haren erantzuna, programa da.

Noten zukuak. Kartel nagusiak, esaterako, denboraldi osoari dagokiona, distilazio baten ideia islatzen du. Interprete eta musika-egileen musika-unibertsitate bakoitzetik ateratako zukuarena. Unibertso horietako bakoitzaren tanta gutxi batzuk, kontzertu eta pieza txikitik aterata, nahikoak dira bertara gerturatu diren guztientzako bitamina emozionalak asetzeko. Hemen, zukugailuaren eta limoiaren arteko konjuntzio ia esferikoak, planeta baten antzerako funtzionamendua du. Musika maite dutenengan eragina izango duten musika-noten eta doinuen unibertso baten bezala.

Kanpainaren sinbolo guztiak elkarri babesten dira, eta modu globalean interpretatzen dira. Kanpaina sinboloen sinfonia da, konposizio metaforikoa, magikoa, zirrargarria eta entzule gehiagori zabalduetako denboraldi ikusgarri bat adierazten duten irudi erakargarrien doinua: betiko entzuleei zuzenduko gara, baina baita zaletu berriei ere, zeinak erakartzea espero ditugun, eta zeinak gogo handiz hartuko ditugun.

Guztiori, ongi etorriak Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldi berrira.



